

**EUSKARA EUSKALDUNON
HIZKUNTZA NAZIONALA****Sarrera**

1936ko uztailean du abiabidea euskaldunon gizarte-kultura arloan izandako izugarritzokoko hondamenak. Gizarte, politika eta kulturak, batez ere euskarak indartsu zeraman abiabide itxaropentsua eten zuen gerra zibilak. Gehiago oraindik; hurrengo urteetan etsipena nagusituko zen, itxaropen hura zeharo hondatu baitzen inolako irtenbiderik gabe.

Egia horretaz jabetzeko gogora ekarri beharra dugu, kultura, politika eta erlijio alorreko hainbat jarduera edo mugimenduren bidez sortu eta indartu zen susperraldi hura. Urte haiek gaineratik bada ere begiratu ostean, euskal kulturaren eta euskararen aldeko egintzen hondamena ekarri, eta euskarak nahiz euskaldunek jasandako jazarpenaren iturburu izan ziren 1936-1937. urteak eta ondokoak aztertzeraz joko dugu. Azkenik, era berean, hizkuntzak 1945-1950. urteetan izan zuen berpizte epela aipatuko dugu; hain zuzen ere, bide horretatik etorri zen 60ko hamarkadako kultur mugimendu atzeraezina.

I.- EUSKARA GERRA ZIBILA BAINO LEHENAGO

1) *Susperraldia: XX. mendeko lehen hamarkadak (1900-1930)*

Hainbat faktorek, beraien artean eragin hain handia izan zuten karlisten gerrek ekarri zuten XIX. mendean gizarte, politika eta kultura arloan izandako krisialdia. Gizarteko ondorio kaltegarrien artean euskarari dagokionetan izandako ezkortasuna eta etsipena nabarmentzen dira, horrek atzerakada handia ekarri baitzuen. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka indartuz joan zen euskaldunen artean nazio izatearen sentimendua.

Aurreko politika-erak gaitzesteak nazionalismoaren bizipen argiagoa sortzea ekarri zuen. Euskal mugimendu nazionalak barne-barnean erroturik zituen sustraiak hizkuntzan; horrela, hizkuntza nazionalaren aldeko politika eta sentimendua eskuak elkar emanda indartuz joan ziren, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran.

Sentimendu nazionalaren, eta batez ere hizkuntzaren susperraldi haren ondorio izan ziren: kultur jarduerak zituzten talde antolatuak, zientzia-gizonak, hainbatean herriaren sentimenduaren isla izan zen elizaren jokaera, hainbat elizgizon jakintsu euskal kultura eta euskararen sustatzaile bilakatu zirelarik, ikastola bezalako kultur mugimenduen gidari ziren politikariak, etab. Garai horretan hurrengo hauek nabarmendu daitezke:

- Pertsona ospetsuen idazlanak mugimendu berrien bultzagarri gertatzea: Arturo Kanpionek (1854-1937)¹ historia eta kulturari buruz idatzi zituen lanek aldeko giroa sortu zuten batez ere Nafarroan. Beraren lan gehienak gaztelaniaz idatziak izan ziren arren euskal kultura eta hizkuntzaren bandera izan dira, bereziki Nafarroan, beste asko eta asko bide horri jarraituz idaztera bultzatuz.

¹ 1896 eta 1936 urteen artean Bilbon eta Iruñean, *Euskariana* izenburu orokorra duten 12 liburuki argitaratu zituen.

Egin-eginean ere, *Euskal Erria* aldizkaria (1880) sortuz eta *Cancionero Vasco* (1877-1880) bezalako lanen bidez euskal idazleak elkartu zituen. Jose Manterolak (1849-1884), *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara* (Tolosa, 1888) eskaini zigun. Jose Frantzisko Aizkibelek (1798-1985) *Diccionario Basco Español titulado Euskeratik Erderara biurtzeko Itztegia* (Tolosa 1885) idatzi zuen; eta horrela beste hainbat eta hainbat euskal kulturaren susperraldiari oinarriak ezartzen ari ziren.

- Bultzada berri horretan hainbat aldizkari sortu ziren, halako batzuk urte luzeetako historia oparoa eginez. Hurrengo hauek aipa ditzakegu²: *Revista Euskara* (1878), *Euskal Erria* (1880), *Eskualduna* (1887), *Euskaldun* (1896), *Euskaltzale* (1897), *Revista Internacional de Estudios Vascos* (1907), *Euskal Esnalea* (1908), *Euzko Deya* (1916), *Jesus'en Biotzaren Deya* (1917), *Euskera* (1919), *Argia* (1921), *Gure Herria* (1921), etab.

- Sabino Arana Goiri (1865-1903) izan zen, izan ere, era nabarmenean euskal mugimendu nazional garrantzitsu biok, politikoa eta kultura-hizkuntzarena bereganatu eta bultzatu zituen. Susperraldi horren haritik politika, linguistika, literatura eta abarri buruzko liburuak³ idatzi zituen eta aldizkariak sortu⁴, arlo biei bultzada historiko ahaztezina, gaur ere indarrean dena, emanaz. Hain zuzen ere, batetik alderdi bat (EAJ-PNV, 1895) sortu zuen, ordutik gaur arte Euskadiko mugimendu politikorik garrantzitsuena izan dena; bestetik, euskal nazioaren oinarritzko ezaugarritzat euskara aldarrikatu zuen. Geroago areagotu egingo ziren euskara indarberritzeko ahaleginak, esaterako, 1910ean Eusko Gaztediaren eraginez euskarako katedra sortze-

² Javier DIAZ NOCI, *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1884-1959)*, Donostia, 1994, 115-65.orr.. Begiratu, era berean, inprimategirako gertatua dudan lan luzea; berau erabiliko dut idazlan honetan: *Aldizkari eta egunkarietako olerki eta bertsoen bibliografia*.

³ Ik. *Obras completas*, 3 lib. (2a.), Donostia, 1980.

⁴ *Euzkadi* (1901), *Bizkaitarra* (1893), *Baserritara* (1893), *La Patria* (1901), eta *El Correo Vasco* egunkaria (1899).

an edota susperraldi hari indar berria emango zion *Euskalazale Bazkuna* bezalako erakundeak martxan jarriz.

Euskal kulturaren eta euskararen susperraldi hura bultzatu zuten jakintsuak, ostera, hurrengo hauek ditugu a) R.M.Azkue (1864-1951); euskal letretan erraldoi handia izan zen euskal apaiz hau izango da euskal linguistika⁵, literatura, historia eta tradizio, ipuin eta abarren ikertzaile nagusia⁶; langile nekaezin hau, era berean, Euskaltzaindiaren sortzaile eta buru ere izan zen. b) Julio de Urkijo (1871-1950) jaunak *Revista Internacional de Estudios Vascos* (1907) sortuz bultzada handia eman zion euskal kulturaren susperraldiari, zientzia alorretako ateak ireki eta gora jasoz. c) Baina hasiera hauetan baditugu inoiz ahaztu behar ez genituzkeen euskal kulturaren eta bereziki euskararen alde gogotsu lan egin zuten beste zenbait zientzia-gizon ere; hain zuzen ere euskarari maitasun handia erakutsi eta jakingura zientifikoak bultzatuz azterketak egin zituzten zientzia-gizon atzerritar hauek: Wentworth Webster (1828-1907) eta Edward Spencer Dodgson (1857-1922) ingelesak; W. von Humboldt (1767-1835), Victor Stempf (1841-1909), Hugo Schuchardt (1842-1927) eta Gerahrd Bähr (1900-1945) alemanak; euskal jatorria zuen Jean Saroihandy (1867-1932) jauna; Baionan bizi zen Georges Hérelle (1848-1935) frantsesa; W.J.Van Eys (1825-1914) eta C.C. Uhlenbeck (1866-1950) holandarrak, etab.

- Elizan hizkuntza ofiziala latina zen, baina aldi hauetarako hitzaldiak, abestiak, aitortza-entzuteak eta katekesia euskaraz izaten ziren, honek garrantzi nahiko handia izanik euskararen bizitzan; harreman mota hauek, esaterako, Iparraldean hain errotuta izanik XX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, Frantziako gobernuak erakunde zibil eta erlijiosoetan

⁵ *Diccionario Vasco-Español-Francés* (Tours 1905-1906); *Euskal Izkindea - Gramática Euskara* (Bilbao, 1891), *Morfología Vasca* (Bilbao, 1923), etc.

⁶ *Ardi galdua* (Bilbao, 1918), *Antzinako ipuiñak* (Zarautz, 1968), *Iatsibi* (Bilbao, 1989), *Urlo...* (Bilbao, 1911), *Txirristadak* (Bilbao, 1898); *Cancionero popular vasco* (Barcelona 1918), *Euskalerrriaren Yakintza* (Madrid 1935-1947), *Lamiak Euskalerrrian* (Bilbao, 1927).

euskara erabiltzea debekatu zuenean, euskal kleroaren multzo handi batek oztopoak jarri zizkioten hizkuntzaren aurkako heriotza-zigor horri, horren ondorioz zetozkien zigorreia eta gainerako jazarpenei aurre eginez⁷. Bestalde, euskararen eta euskal kulturaren aldeko hainbat sustatzaile, apaizak eta erlijiosoak izan ziren; beraiei zor dizkiegu euskara hutsean argitaratzen hasi ziren aldizkariak⁸.

- Euskal erakundeek, Aldundiek, bestalde, XX. mendeko lehen bi hamarkadetan zehar hainbateko eragina izaten hasi ziren eskola munduan. Gogoratu beharra dago Bizkaiko Aldundiak auzo-eskolak abiabidean jartzen eginiko lana; horrela, 1920-1932. urteen artean 125 auzo-eskola eraiki zituzten. Bultzatzaileen artean Eduardo Landeta (1862-1957), Julene Azpeitia (1888-1980) eta, batez ere, Luis Eleizalde (1878-1923) aipatu ditzakegu; azken honek, besteak beste, honakoak proposatzen zituen: a) euskararen erabilera gizartean zabaltzea, goi mailakoen artean ere indartuz. b) euskara lehen mailako eskolan sartzea. c) euskalkiak bateratzen joateko bideak jartzea. Eleizalderentzat euskal nazioaren aldeko borroka eta euskararen aldekoa, gauza berbera ziren⁹.

- Nahiz eta era mugatuan izan, erakundeek ere ahalegindu ziren euskara defendatzen. Euskal diputatu batzuk mezua bidali zioten gobernari (1917). Gipuzkoako Aldundiak laguntza ematen zien aldizkari batzuei (1911) eta euskal gramatika eta histo-

⁷ Cf. Julen URKIZA, *Frantziako Estatuak euskararen eta euskal elizgizonen aurka 1889-1906 bitartean egindako jazarpenearen kontara dokumentuen argitan*, Karmel 1987-4, 65-76.

⁸ 1936ko gerraren aurreko aldizkariak: *Argia*, *Busturi'ko Kistar ikastia*, *Ekin*, *Eleiz-Orria*, *Euskaltzale*, *Gazteen laguna*, *Gure Mixiolaria*, *Gure mutillak*, *Ibaizabal*, *Igandeko orria*, *Irugarrengo Prantzisko'tarra*, *Irugarrengo Irakaslea*, *Jaungoiko-Zale*, *Jesusén Biotzaren Deya*, *Karmeng'go Argia*, *Kristau ikasbidea*, *San Frances Terziaren hilabetekaria*, *San Francesen deia*, *Yakintza*, *Zeruko Argia*, *Zeruko izpitxoak*, *Zeruko Orrichua*...

⁹ Erligio eta literatura arloko beste hainbaten artean beraren *Morfología de la Conjugación Vasca sintética* (Bilbao, 1913) aipatu behar dira.

ria liburuak erosten zituen edo diruz laguntzen (1913-1919)¹⁰. Era berean, txosten bat idatzi zion euskararen alde “Militarren Direktorioari” (1923-1934). Aldundi horrek 1918ko urtarrilaren 18an ekimen garrantzitsu bat izan zuen Eusko Ikaskuntzen Batzarra egitea proposatuz. Batzar hori euskal literaturaren eta hizkuntzaren aldeko urrats handia izan zen¹¹... Bizkaian antzerako bidetik jardun zuten; bestalde, hainbat lanbide alorretan euskararen ezagutza eskatzen hasi ziren¹². Baina kultur mugimendu handi horri galga sendoa jarri zion Primo de Rivera-k (1925).

- Mugimendu guzti horretan edo euskaraz burutzen zen kultur jarduera horretan eragin handia izan zuten, era berean, gai ezberdinei buruzko liburuek, kultur aurrerakadaren adierazpidea izateaz gainera, zientzia eta literatura eremuetan bide berriak urratzen zituztelako. Hona hemen euskarazko liburuak, literatura mota ezberdinen arabera arloka sailkatuta:

- Eleberri arloan: Domingo Agirre (*Auñemendiko lorea*, Bilbao, 1898; *Kresala*, Zarauz, 1906; *Garoa*, Durango, 1912); José Manuel Etxeita (*Josecho*, Durango, 1909; *Jayoterri Maitia*, Durango, 1910); R.M.Azkue (*Ardi galdua*, Bilbao 1918), Pierre Lhande (*Yolanda*, San Sebastian, 1921); Jean Barbier (*Piarres*, Baiona, 1926),...

- Olerki eta bertso arloan. Gracian Adema “Zalduby” (*RIEV, Euskal Erria, Eskualduna*, etc.), Felipe Arrese Beitia (*Ama Euskeriaren liburu kantaria*, Bilbao, 1900; *Asti-orduetako Bertsozko Lanak*, Bilbao, 1902; *Olerki sortatzua*, Zornotza, 1930); Jose Manuel Etxeita (*Au, ori ta bestia. Neurtitzak*, Durango, 1913); Antonio Arzac (*Amona*, Donostia, 1900); Emeterio Arrese (*Nere bidean*, Tolosa, 1913; *Txindor*, Donostia,

¹⁰ Begiratu Gipuzkoako Probintziako Buletin Ofizialeko 1913-1919 arteko urteak.

¹¹ *Primer Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de los trabajos de dicha asamblea celebrada en la Universidad de Oñate del 1 al 8 de Septiembre de 1918...*, Bilbao, 1919, 969 or.

¹² Begiratu Bizkaiko Probintziako Buletin Ofizialeko 1917-1924 arteko urteak.

1928); Jules Moulier “Oxobi” (*Boz-Oibu! Deidar! Nigar!*, Baiona, 1913; *Alegiak*, Baiona, 1926); Luis Jauregi “Jautarkol” (*Biotzkadak*, Iruñea, 1929); Bingen Aizkibel (*Urretxindorra*, Bilbo 1918); Sabino Arana (*Olerkijak*, Bilbo, 1919); Gabirel Manterola (*Goi-izpiak*, Zornotza, 1921); Robustene Mujika (*Miren Itziar’ri idazkiak eta olerkiak*, Zornotza, 1923); Alejandro Bilbao (*Biotz abeslari*, Zornotza, 1927)...

- Antzerki arloan. Aztertzen ari garen urteei dagokiozkiela (1900-1930) hurrengo hauek ditugu idazlan bat edo gehiago argitaratu zuten idazleak: Blas Alegría, Toribio Alzaga, Antonio Amundarain, Clement d’Andurain de Maytie, Xalbador Arriola, Luis María Arrizabalaga, José María Arroita-Jauregi, José Artola, Juan Bautista Ayerbe, R.M.Azkue, Abelino Barriola, Miguel Cortes, Etienne Decrept Etchemaitie, Coserio Deñoka, Alfredo Echave, Katariñe Eleizegi, José Elizondo, Benigno Etxanis, Joseba Garcia Goldaraz, Bittor Garitaonainida, Elías Gorostidi, Ramón Illarramendi, Bitoriano Iraola, Julien Laplace, A.Larraitz, Toribio Larrea, Gregorio Mujika, Ignacio K.Nuñez Arizmendi, José María Olaizola, Manuel Recondo, Marcelino Soroa, Juan Ignacio Uranga, Fernando Urkia - Prantzisko Madina, J.M. Usandizaga, Nicolas de Viar Eguskiza, Alonso María Zabala,¹³...

- Narratiba arloan. Hainbat izan ziren arren, honako hauek nabarmendu ditzakegu: Jean Barbier, Evaristo Bustinza “Kirikiño”, Juan Bautista Eguzkitza, Luis Jauregi “Jautarkol”, Pedro Miguel Urruzuno, Nicolas Ormaetxea “Orixe”, etc.

- Gramatika eta hiztegitza arloan: hurrengo hauek dira garrantzitsuenak: Pierre Lhande¹⁴; R.M.Azkue¹⁵, Luis de Eleizalde¹⁶, José Zabala-Arana, Isaac Lopez Mendizabal, etab.

¹³ Begiratu idazle haucen antzerki lanak: Joan Mari TORREALDAI NABEA, *XX Mendeko Euskal Liburuen Katalogoa (1900-1992)*, Donostia, 1993, 570-584 or.

¹⁴ *Dictionnaire Basque-français*, Paris, 1926.

¹⁵ *Euskal Izkindea - Gramática Euskara*, Bilbao, 1891; *Morfología Vasca*, Bilbao, 1923; *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Tours, 1905-1906.

¹⁶ *Morfología de la Conjugación Vasca sintética*, Bilbao, 1913.

2. Errepublikan (1931-1936) bultzada handia hartu zuen euskarak

Aipatu ditugun susperraldiko aurrerakadak areagotu egin ziren bigarren errepublika garaian. Susperraldiaren adierazgarri ditugu garai horretan eginbidean jarritako kultur mugimenduak, mota ezberdinetako literatur jarduerak, liburuen argitalpenak, hainbat aldizkari berriren sorrera, etab.

- Mugimenduak eta sustatzaileak

Kultur mugimendurik garrantzitsuenetarikoa *Euskarazaleak* izan zen, eta sustatzaile nagusia Jose Aristimuño "Aitzol" (1896-1936)¹⁷. Gizarte horretan zenbait talde edo kultur mugimendu edota aldizkari-jarduera aurkitzen ditugu, hala nola, *Euskal Esnalea*, *Jaungoiko-zale*, *Euskeraren adiskideak*, etab...; eta sustatzaileen artean, Aitzolen ondoan B. Etxegarai, F. Landaburu, A. Apraiz, A. Arrue, A. Anabitarte, etab. aipa ditzakegu. Era berean gogora ekartzekoak dira *Deia* egunkariak nahiz *Jakintza* aldizkariak burututako lana. Euskara sustatzea "aberria" berreskuratzea adina zen. Talde horiek gizartean bultzatzen zuten euskara; herritarrengan biziberritzeaz gainera literatura bezalako gorago-ko beste gune batzutan ere erabiltzea nahi zuten. Horrela Euskal Olerki Egunak" antolatu ziren: 1930ean, Erreterian¹⁸; 1931ean, Tolosan¹⁹; 1932an, Hernanin²⁰; 1933an, Urretxun²¹; 1934an, Zarautzen²²... Emaitzarik ederrenak urteko lehiaketa edo jaialdia-ri zegokion liburuan bilduz argitaratzen ziren.

¹⁷ Orain dela urte batzuk (1986-1988) Erein argitaletxeak lan guztiak argitaratu zituen 6 liburukitan: *Idazlan guztiak - Obras completas*.

¹⁸ *Eusko Olerkiak. Errenderi'ko Olerki Jaietarako eratu zan olerti gudara bidaldutakoenetatik autuak...*, San Sebastián, 1930.

¹⁹ *Eusko Olerkiak. Tolosa'ko Jaietarako eratu zan olerti gudara bidaldutakoenetatik autuak. 1931*, San Sebastián, 1931.

²⁰ *Eusko Olerkiak. Ernani'ko Olerki Jaietarako eratu zan olerti gudara bidaldutakoenetatik autuak. 1932*, San Sebastián, 1932.

²¹ *Eusko Olerkiak. Urretxua'ko olerti jaietarako eratu zan olerti dudara bidaldutakoenetatik autuak. 1933*, Donostia, 1933.

²² *Zarautz'ko Olerki jaietarako eratu zan olerti gudara bidaldutakoenetatik autuak. 1934*, Donostia, [1935].

Era berean, bertsolarien egunak ere antolatzen ziren. Urte horietan indar berria hartu zuen bertsolaritzak, batez ere Jose Manuel Lujandio “Txirrita” eta Kepa Enbeita “Urretxindorra” bertsolarien inguruko belaunaldian; laster jarraitu zieten Manuel Olaizola “Uztapide”, Iñaki Eizmendi “Basarri”, eta abarrek. Bertsolaritzak kalitatea lortu zuen eta, era berean, estimua bereziki kultura eremuan... Eta 1935ean Euskal Herriko lehen txapelketa antolatu zen. Donostian izan zen urtarrilaren 20an. “Basarri” gazteak lortu zuen txapela. 1936ko urtarrilaren 19an izan zen hiri berean bigarren txapelketa; oraingoan urte berean hilko zen “Txirrita” gertatu zen txapeldun, eta “Uztapide” txapeldunorde²³.

Ez zen atzean geratu antzerkia; euskal antzerki egun bat ere egiten zen. Gogora dezagun ordurako sortua zuela A. M. Labaienek 1932an *Antzerki* hileroko aldizkaria.

Honelako lehiaketan antolaketa bidez, hainbat sari banatuz, idazleak animatu eta zirikatu nahi ziren. Aipatutakoez gainera, hitz lauzko lanentzako “Kirikiño saria” etab. gogora ditzakegu. Kultur mugimendu eta jarduera guzti hauetan Europako literatura mugimenduekin harremanak ezarri nahi zituen literatura berriztatzeke gogo nabaritzen zen.

Garai honetan zenbait erakunde, eta politikari batzuk euskararen balioaz jabetzen ari ziren, hainbatean aipaturiko taldeen eta herritar multzo handi baten eraginez. Hala ere, zenbait politikarik euskal hizkuntza nazionalari buruz eginiko proposamenean iluntasun handiak agertzen ziren. Euskarari ofizialkidetasuna ematea, aurreko urteetatik (1919, 1923, 1924,...) zetorren zerbait zen. Errepublika garaian, 1931eko maiatzaren 22an, Gipuzkoako Alderdi Errepublikar Federalak Gipuzkoarako onartutako Estatutu proiektuak hainbat alderdi eskas izan arren onartu egiten zuen euskararen ofizialkidetasuna. Baina askoz ere urrats handiagoa eman zuen *Eusko Ikaskuntzak* prestatu, eta emendekin txiki batzuk egin ondoren 1931eko maiatzaren 21an Lizarran onartua izan zen euskal estatutuaren aurreproiektuak. Euskarari

²³ Ik. Gorka AULESTIA TXAKARTEGI, *Bertsolarismo*, Bilbao, 1990, p.64-65.

zegokionez aurrerakada garrantzitsua suposatzen zuen: "Euskaldunon berezko hizkuntza euskara da. Berau gaztelaniaren maila berean ofizial aitortua izango da". Hala ere, Bizkaiko Aldundiak 1931eko uztailaren 3an ez zela garai egokia eta atzera bota zuen elebitasunari buruzko dekretua Euskal Herriari eman ziezaion estatuaren aurrean kudeaketak egitea²⁴. Euskararen balorazio zuzena, aipaturiko Eusko Ikaskuntzaren aurreproiektukoan baino maila apalagoan izanda ere, beste zenbait proiektutan ere agertzen da, hala nola, 1932koan edo 1933koan.

Oso eragin handia izan zuten euskararen sustapenean eta erabileran hor-hemenka sortu ziren auzo-eskolek ere. 1932-1933. ikasturtean 6321 bizkaitar ari ziren ikasketak halako eskoletan egiten, urteak aurrera egin ahala uste zen baino emaitza kaxkarragoak ekarri bazituzten ere. Urte hauetan sortu ziren lehen ikastolak: Bergaran (1932), Iruñean (1932), Lizarran (1932), Gasteizen (1933), Elizondon (1935)... Gipuzkoan Tolosako ikastola (1922) eta Errenteriakoa (1928) sortu ondoren, beste hainbat sortu ziren 30eko hamarkadan, gerra aurrean. Horrela, esaterako Andoain, Bergara, Irura, Soraluze, Oñati, eta abarretan; baina, sortu ziren beste hainbat herri garrantzitsu batzuetan ere: Iruñean (1932), Lizarran (1932, Elizondon (1935), Gasteizen (1933), eta abarretan. Bilbon 1932an *Eusko-Ikastola Batza* sortu zen, EAJ-ko emakume taldeak eta Eusko Gaztedik bultzatuta. Ikastolek, 1936an, eragozpenak eragozpen, indar handiz aurrera zihoan erakundea osotzen zuten. Guzti honi batzokietan ematen ziren euskarazko eskolak gaineratu behar zaizkio, halakoetan hainbat gaztek berreskuratu baitzuten hizkuntza nazionala.

Talde abertzaleek bultzatutako ikastola eta auzo-eskola mugimendu honen barruan, zeregin garrantzitsua izan zuen Elizak, nahiz bere kide ziren apaiz, erlijioso eta abarren jarduera pertsonalaren eraginez nahiz eskaini zuen azpiegituraren ondorioz; bestalde, hainbat sustatzaile laiko kristau sentimendu sakoneko-

²⁴ Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya. 1931-VII-24.

ak ziren... Guzti honi, kristaubidearen eta sermoigintzaren bidez euskararen erabilerari emandako arnasa bizia erantsi behar zaio.

- *Literatura*

Gerra zibilaren, hau da, 1936ko borrokaldi odoltsuaren aurre-aurreko uneetako susperraldiaz mintzatzerakoan, alabaina, gogora ekarri behar da euskararen kultura eta literatura arloko jarduera ere, horrela bakarrik neurtu ahal izango baita zer-nolako kultur hondamendia ekarri zuen altxamendu nazionalak.

Euskara ikasteko gramatika, hiztegi eta liburuez gainera (gogora ditzagun: Miguel Arruza (1934), Isaac Lopez de Mendizabal (1916, 1932), Pablo Zamarripa (1930, 1931, 1933) literatur lanek, batez ere olerkiek, etorkizun oso oparoa iragartzen zuten.

Olerkigintzan garai honetan izandako loraldiaren adibiderik nagusienak Lizardi, Lauaxeta eta Orixé ditugu. Lizardik (J.M. Agirre, 1896-1933) hainbat kultur ekintzetan, hala nola, *Euskaren eguna* bezalakoetan parte hartu zuen. Izugarria izan zen zazpi aldizkari eta egunkaritan 1917tik 1933ra bitartean argitaratu eman zuen olerki jarduera²⁵; *Biozkadak* (Iruñea, 1929) liburuak izandako arrakasta handiaren ondorioz Erreterian Luis de Jauregiren alde ospatu zen olerki lehiaketa egin ostean, (Lizardik berak ere hiru olerki aurkeztuz esku hartu zuen) *Biotz-Begietan* (Bilbo, 1932) olerki sorta hautatua argitaratu zuen, Orixeren sarrera zuela. Eta hil osteko urtean, *Umezurtz olerkiak* (Donostia, 1934) izena zuen beraren beste olerki liburu txiki bat argitaratu zen.

Beste olerkari handi bat Lauaxeta (Esteban Urkiaga, 1905-1937) bizkaitarra dugu; gazteago zen arren, Lizardik baino lehenago, 1931ean, argitaratu zuen *Bide Barrijak* (Bilbo, 1931) olerki liburu, Aitzolen sarrera zuela.

²⁵ Olerkiak argitaratu zituen hurrengo urte hauetan: *Euzko Deya*, 1917-1920; *Euzkadi*, 1927, 1931-1933; *Argia*, 1928, 1934; *Euskal Esnalea* 1929-1930; *Euskera*, 1932; *Yakintza*, 1933; *Tierra Vasca*, 1933. Ik. Julen URKIZA, *Aldizkari eta egunkarietako olerki eta bertsoen bibliografia* Markina-Xemein, 1999, 1735 or. (Karmel Sorta - 11).

Lau urte geroago beste bat *Arrats-Beran* (Bilbo, 1935) argitaratuko zuen. Era berean hainbat aldizkari eta egunkaritan parte hartu zuen. 1928-1935. urteen artean hainbat olerki argitaratu zituen aldizkako zortzi argitalpenetan²⁶.

Garai hauetan, gerra aurreko urteetan, Orixek ere (Nikolas Ormaetxea, 1888-1961) lan nabarmena egin zuen. 1936. urtea baino lehenago argitaratu zituen liburuen artean, Gorago aipatutakoez²⁷ gainera bi olerki gogoratu behar ditugu: bata, Mistral-en *Mireio* (Bilbo, 1930) euskaraz eta, bestea, berak eginiko *Barne-Muinetan* (Zarautz, 1934) ageri zaizkigu. Hainbat olerki argitaratu zituen aldizkarietan ere²⁸.

Literaturan, eta batez ere olerkiaren susperraldi honetan, aipamen berezia merezi dute Tenek (Robustiana Mujika, 1888-1981)²⁹ eta Loramendik (Fr. Joakin de Bedoña, 1907-1932)³⁰; era berean, geroago hainbat olerki idatziko zituzten zenbait olerkari aipatu beharra dugu, hala nola, 1936an Bilbon *Goiz-Aize* argitaratu zuen S. Muniategi (1912-1990)³¹, Eusebio Erkiaga (1912-1993)³², Santiago Onaindia³³, etab.

²⁶ *Euzkadi*, 1928-1932, 1935. urteetan; *Euskerea*, 1929-1932, 1934; *Jaungoiko-Zale*, 1928, 1930; *Argia*, 1930, 1932; *Euzko*, 1932; *Argiaren Egutegia*, 1933-1934; *Vida Vasca*, 1934; *Yakintza*, 1934-1935.

²⁷ Begiratu, baita ere: *Santa Cruz Apaiza*, San Sebastian, 1929; *Tormes-ko itsu-mutilla* lanaren itzulpena, Bilbao, 1929.

²⁸ Olerkiak argitaratu zituen hurrengo aldizkari eta urteetan: *Jesusen Biotzaren Deya*, 1917, 1919, 1922; *Euskalerraren Alde* 1919; *Argia*, 1930; *Karmengo Argia*, 1932; *Euzkadi*, 1930, 1932, 1935; *Argiaren Egutegia* 1934, 1936; *Yakintza*, 1936.

²⁹ 1923an *Miren Itziar'ri idazkiak eta olerkiak argitaratu zuen*; 1936. urtea baino lehenago hurrengo zortzi argitalpen hauetan zituen olerkiak: *Aberri-JOV*, *Argia*, *Argiaren Egutegia*, *La Baskonia*, *Euzkadi*, *Euzko Deya*, *Jaungoiko-Zale*, *Laurak bat*.

³⁰ Olerkiak argitaratu zituen *Zeruko Argian* 1932-1933. urteetan, eta *Euzkadin* 1932an.

³¹ Ik. Sabin MUNIATEGI, *Olerki guztiak*. Larrea-Zornotza, 1990, 1155 orr. (Karmel Sorta, 3).

³² Nahiz eta gaztea izan hainbat olerki idatzi zituen hurrengo argitalpen hauetan: *Aberri Eguna*, *Argia*, *Ekin*, *Euskerea*, *Euzkadi*, *Euzko*, *Yakintza*. (Ik.

Nabarmentzekoa da, baita ere, *Euzkadi* egunkariaren lana ere; gehiena gaztelaniaz argitaratzen zen arren, euskarari leku zabala egiten zion; bertan garrantzi handia izan zuten literaturak eta olerkiek; egin-eginean ere, historian zehar gaur egun arte olerki eta bertso gehien argitara eman dituen aldizkako argitalpena izan da. Bertan 3.100 olerki jaso ditugu; kopuru izugarria zer-nolako argitalpena zen eta zein urte gutxitan (1913-1937) kaleratu zen kontuan izanez gero.

Baina, olerkiez gainera, beste zenbait literatur mota eta zientzia lan ere argitaratu ziren euskaraz. Antzerkiari dagokionez urte hauetan argitaratu ziren lanen artean aipatzekoa dugu Antonio Maria Labaien jaunak 1931ean sortu zuen *Antzerki* aldizkariak burututako lana, bertan berak eta beste hainbatek lan ugari argitaratu baitzituzten³⁴. Zientzia alorrean Gabirel Jauregi (1895-1945) karmeldarraren lanak, *Pisia* (1935) eta *Kimia* (1936) nabarmentzen dira³⁵. Ezin ditugu, ezta ere ezkutuan ahaztuta utzi Juan Bautista Eguzkitzaren *Gizarte-Auzia. Ugazaba eta langille arteko gora-berak* (Zornotza, 1935, 119 or.) edota Isaac Lopez de Mendizabalen liburuak (1879-1977)³⁶, etab.

Kultura eta hizkuntzaren susperraldi hau bultzatu eta gailurrera eramateko bidea aldikako argitalpenak izan ziren. XX.

Julen URKIZA, *Eusebio Erkiagaran olerkien bibliografia aldizkari eta egunkarietan*, Karmel 1993-3, 27-32. Gaur egun gertatua du argitaratzeko Igone Etxebarriak bere olerkiak).

³³ Ik. *Olerki guztien Bilduma*, Larrea-Zornotza, 1989); Julen URKIZA, *S.Onaindiaren euskal idazlanen bibliografia*, Amorebieta-Etxano, 1989.

³⁴ Begiratu 1931ean eta 1936an argitaratutako zazpi idazlan: Joan Mari TORREALDAI, *XX.Mendeko Euskal Liburuaren Katalogoa (1900-1992)*, Donostia, 1993, p.214.

³⁵ Begiratu oraintsu argitaratutako lana: *Aita Gabirel Jauregi Uribarren, 1895-1945*: KARMEL 1995-1/2, 1-512 orr.

³⁶ *Xabiartxo. Umiei euskeraz irakurtzen erakusteko idaztia*, Tolosa, 1925, 144 orr. (Geroago hainbat aldiz berrargitaratu izan da); *Martin Txilibitu, "Umearen laguna", izenekotik ateratako euskal-irakurbide laburra*, Tolosa, 1931, 32 orr. 1931; *Manual de conversación castellano-euskera, con extensos vocabularios de nombres, versos y modismos, diálogos, cartas, refranes, anuncios y un compendio de gramática*, Tolosa 1932; etab.

mendearen hasieran, batez ere 1919-1921. urteetan, hainbat aldizkari sortu baldin baziren 30eko hamarkadan bultzada izugarria hartu zuten: 1930ean, zazpi aldizkari sortu ziren; 1931ean, sei; 1932an, bederatziz; 1933an, lau; 1934an, sei; 1935ean, bi; 1936an, lau³⁷. Guzti horien artean aipamen berezia merezi dute euskarazko *Bertsolariya* eta *Karmen'go Argia* (1931), eta *Antzerki*, *Ekin* eta *Euzko* (1932) aldizkariak.

II.- GERRATEKO URTEAK (1936-1939)

1933ko azaroaren 19an izan ziren hauteskunde orokorrak, eta politika eta gizarte alorrean bi urte ilun iragan ostean, 1936ko otsailaren 16an egin ziren berriro. Ondoko hiletan urduritasuna nabaritzen zen militarren artean, eta altxamendu militarren arriskua sumatzen zen,... Bien bitartean diputatu nazionalistak Vatikanora joan ziren Euskadiren defentsa egitera³⁸.

Hilabete batzuk geroago, 1936ko uztailaren 18an, altxamendu militarra izan zen,... Hasieratik nagusitu zen altxamendu hori Nafarroako herri gehienetan eta laster makurtu behar izan zituzten buruak gainerako herrietan ere. Era berean lehen hilabeteetan Araba gehiena ere mugimenduaren eskupean jarri zen. Gipuzkoan errenditu egin ziren Loiolako kuartelak; Irun 1936ko irailaren 5ean hartu zuten armetan altxatuek; gero, beste hainbat herritan beste hainbeste jazoko zen, irail horretan ia-ia Gipuzkoa beren esku hartuz. Eragozpen handiagoak izan zituzten Bizkaia hartzeko. Egoera zail hartan eratu zen Euzkadiko lehen gobernua. 1936ko urriaren 7an aukeratu zuten lehendakari Jose Antonio Agirre. Faxistek gerraren ankerkeria berria erakutsiz Gernika errautsi zuten bonba artean (1937ko apirilaren 26an) triskantza izugarria eginez. Eta 1937ko ekainaren 19an Bilbo menpe hartu zutencan, euskal-

³⁷ Ik. Javier DIAZ NOCI, *Euskarazko aldizkari, eguntegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Donostia, 1994, 191 or.

³⁸ Ik. Ildfonso MORIONES, *Euzkadi y vaticano (1935-1936). Documentación de un episodio*, Roma, 1976, 167 p.

dun askok atzerrirako bidea hartu behar izan zuten, geratu zirenak gerra zibilaren ondoko jazarpen izugarria jasan zutelarik

1. Gerra garaian: kultur erresistentzia (1936-1937)

Militarren altxamenduak gurutze-bidean jarri zituen euskal kultura eta hizkuntza. Batetik, berehala beherantz egin zuten kultur jarduerak; hala ere, erresistentzia saio berririk ere izan zen armen botercari eta euskararen aurkako jazarpenari aurre egin nahian.

Egoera horretan Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, berehala ekin zion euskararen defentsa eta sustapenari: 1936ko estatuak 1. artikuluko 3. lerroaldean honako hau dio: "El vascuence será, como el castellano, lengua oficial en el País Vasco, y, en consecuencia, las disposiciones oficioales de carácter general que emanen de los Poderes autónomos serán redactadas en ambos idiomas. En las relaciones con el Estado español o sus autoridades, el idioma oficial será el castellano"³⁹. Era berean, Euskal Herriko epaitegiekin, agintariekin eta funtzionarioekin harremanak bakoitzak aukeratutako hizkuntzan izateko eskubidea aitortzen zuen. Horrela, bada, Eusko Jaurlaritzak 1936ko azaroan egia bihurtu zituen Bizkaiko Aldundiaren aurreragoko proiektuak Euskal Unibertsitatea sortuz⁴⁰.

Nafarroako gerraren hasieran, eta 1936ko irailean Gipuzkoan, eten egin ziren kultur mugimendu guztiak. Ezingo da euskarazko libururik argitaratu; baina hutsunerik narbarmenena aldizkari elebidunak eta euskarazkoak desagertzea izan zen. Hainbat aldizkari mututu ziren; esaterako azken sei urteetan agertutako aldizkari hauek: *Amayur* (Iruñea, 1931-1936), *Antzerti* (Tolosa, 1932-1936), *Yakintza* (Donostia, 1933-1936), *Igandeko Orria* (Donostia, 1935-1936). Bizkaian, oster, 1936an *Karmen'go Argia*, *Ekin*, *Jagi-Jagi!* (esan den bezala azkeneko sei urteetan sortutakoez ari naiz) bezalako batzuk desagertzen

³⁹ Diario Oficial del País Vasco - Euzkadi'ko Agintzaren Egunerokoa, Bilbao, 1936 (Durango, 1977), 3-4 or.

⁴⁰ Diario Oficial..., 19-Nov. 1936, 324-327 or.

ziren bitartean, beste batzuk (*Lan Deya*, *Tierra Vasca*) hurrengo urtera arte iraun zuten; erresistentzia ahalegin horretan aldizkari berriak ere agertu ziren, esaterako, *Ereintza* (Bilbo, 1936-1937), *Euzkadiko Agintzaritzaren Egunerokoa* (Bilbo, 1936-1937), *Gudari* (Bilbo, 1936-1937), *Erri* (Bilbo, 1937), *Espetxean* (1937-1938). Aparteko aipamena merezi du euskara hutsean argitaratu zen *Eguna* (Bilbo, 1937) egunkariak; hala ere laster eten ziren itxaropenez beteriko haize bolada horiek.

Liburuaren argitalpenei dagokienez erabatekoa izan zen etendura. Horrela, 1936an Gasteizen argitaratu zen Gabiren Jauregi karmeldarraren *Kimia* liburua ezin izan zen banatu, aurreko urtean argitaratutako *Pisia* bezala. Azken hau hilabete gutxitan agortu zen. Hurrengo urteetan ez zen euskarako liburu berririk agertu.

2. Euskal kultur jardueraren hondamendia (1937-1945)

1937ko ekainaren 19an Bilbo militarrek hartu zutenean bukatutzat jo zitekeen Euzkadiko gerra. Euskaldunek aldraka aterra behar izan zuten atzerrirantz, eta altxamendu nazionalaren jazarpen eta mendeku aldia etorri zen:

a. Kultur susperraldiaren amaiera

Gutziz hondatuta geratu zen euskarari halako ekarpen handia zekarkion ikastolen irakaskuntza eta kultur mugimendua. Desagertu egin ziren euskal erakunde politikoek euskarari ematen zioten laguntza publikoa eta euskal argitalpenak. Zer guztiak diktaduraren pean zeuden, eta ondorioz Elizaren postu eragingarrietan ere euskal abertzale ez zirenak jarri zituzten, horrek euskararen erabileran atzerakada handia ekarriz. Egin-eginean ere egoera ezkor horretan ere, Elizako kideak izango dira, gehienetan maila pertsonalean, eta inoizka baita ere talde lanean, Euskal Herriko erakunde guztien artean euskara gehien erabili zutenak; honetaz gainera, geroago ikusiko dugunez, euskararen aldeko berreskurapenari hasierako eragintxoak ekarriko zion bultzadaren abiaburu ere izan ziren.

Esan dugu, une hartan guztiz eten zela euskarazko liburuak argitaratzeko jarduna. Baina, herri mailan, kalte handiagoa ekarri zuen euskara hutsean ateratzen ziren euskara hutsezko aldizkariak desagertzeak: 1936-1937. urteetan hurrengo hauek desagertu ziren: *Antzerti* (Tolosa, 1932-1936), *Argia* (Donostia, 1921-1936), *Eguna* (Bilbao, 1937), *Ekin* (Zornotza, 1932-1936), *Ereintza* (Bilbao, 1936-1937), *Gazteen laguna* (Zornotza, 1930-1936), *Gure Mixiolaria* (Gasteiz, 1924-1936), *Igandeko Orria* (Donostia, 1935-1936), *Irugarrengoen Irakaslea* (Zarautz - Tolosa, 1917-1936), *Jesus'en Biotzaren deya* (Bilbao, 1917-1936), *Karmen'go Argia* (Zornotza 1931-1936), *Poxpolin* (Tolosa, 1935-1936), *Zeruko Argia* (Iruña, 1919-1936); eta desagertu ziren aldizkari elebidunen artean hurrengo hauek merezi dute aipemen berezia: *Aranzazu* (Arantzazu, 1921-1936), *Bizkaitarra* (Bilbao, 1930-1936), *Euzkadi* (Bilbao, 1913-1937), *Gipuzkoarra* (Donostia, 1920-1936), *Revista Internacional de Estudios Vascos* (Paris - Donostia, 1907-1936), *Yakintza* (Donostia, 1933-1936), etc.

b) *Euskal kulturako pertsonen aurkako jazarpena*

Euskararen sustatzaile handia izan zen Jose Ariztimuño Olaso "Aitzol" apaiza atxilotu eta fusilatu egin zuten (1936-X-18). "Lauaxeta" euskal olerkari handia ere atxilotua izan zen, eta zenbait hilabetetan Gasteizeko karmeldarren komentuan espetxeratuta eduki ostean fusilatu egin zuten 1937ko ekainaren 25ean; espetxe honetan olerki batzuk idatzi zituen gaztelan. Haietariko batean, beharbada azkenean, ekainaren 2ko data daukanean, bizitza osoan izandako sinesmena aitortuz hurrengo ahapaldi hauek dituela bukatzen zuen olerkia:

“¡Ven, Señor!, con secreto viento
tu Espíritu mueva mis ramas,
y con brisas bese las llamas
la paz divina de tu aliento.

Surjan incendios en mi pecho,
que quemen los frutos de muerte.
Tu libertad me ate tan fuerte
que sea tuyo por derecho.

Así, Señor, tu voz me fuera
 - con la belleza por misiva -
 lleno de perdón mientras viva,
 lleno de gracia cuando muera”⁴¹.

Horrela, hainbat idazle fusilatu edo “desagertarazi” egin zituzten, esaterako, “Lur gorri” (Jose Maria Azkarraga), “Aberri”, Elgoibarko semea, etab. Era berean, espetxeratuak edo desagertaraziak izan ziren aldizkari eta egunkarietako erredaktoreak, esaterako *Euzkadī* egunkarikoak⁴²...

Beste euskal idazle batzuk espetxeratuak izan ziren, egin-eginean ere euskal idazleak izateagatik. Hori gertatu zitzaizen Lino Akesolo eta Santi Onaindia karmeldarrei, eta beste hainbati⁴³.

Epaituak eta zigortuak izan ziren euskararen sustatzaile izan ziren apaizak; Esaterako, Mariano Torres-i nazionalisten adiskide izatea, euskara hizkuntzan jakintsua izatea, eta hizkuntza horretan hitzaldiak egitea leporatu zizkioten. Kristau Eskoletako Ignacio Olabeaga anaia kendu egin zuten Zarauzeko ikastetxe-ko zuzendaritzatik eta Sestaora bidali, ikasleei eskola arteko solasaldietan euskara erabiltzeko gomendioa egiten ielako.

⁴¹ E.URKIAGA, *Oleri guztiak*, Bilbao, 1985, 410-412. (Santiago Onaindiak gertatu eta argitaratua).

⁴² Begiratu (Vicente TALON), *Salpicaduras de la tormenta*, en: *Los años negros (eta II)* (Memoria de la Guerra de Euzkadi. 11. koadernoak) (Extras. Defensa, revista internacional...), 685 or.

⁴³ Lino Akesolo “ain zuzen auzitegira eroan eben militarrek eta *Karmen’go Argia* orren zuzendari izan zala-ta, aldizkariaren erru guztiak bota eutsoezan lepora. Pekaturik andiena, beste guztiak bat egiten zituena, aldizkariaren izena bera. `Ya ven, - esaten eban gogor salatzaileak -. Karmengo Arjia (olan esaten eban berak). Hasta el título es separatista`. Orra berak autortu eta saltu bere buruko utsa eta barruko gorrotoa: euskerea bera zan euren arerioa, arerio ondatu bearrekoa. Nik euren buruetan argi apur bat egin nai izan nebanean, maipurukoak: `Calle y siéntase`. Eta fiskalak amabi urteko espetxea eskatzen zituen arren, auzitegiak amasei urtekoa emon eustan. Gorrotogarria zan Karmengo Ama, gorrotogarria Avilako Teresa andia eta Joan Kurutzekoa, gorrotogarriak gure Indiako eta Ameriketako mixiolariak eta euren lanak, gorrotogarriak euskeraz egiten zan edozein lan”: Lino AKESOLO, *Idazlan guztiak*, I. Larrea-Zornotza, 1989, or. 35, (Karmel Sorta, 1*).

Apaizen eta sekularren aurkako hainbeste bidegabekeria ikusirik, Mateo Mugika gotzain-ohiak idazki bat idatzi zion Aulki Santuari: “Siguiendo las normas de la Iglesia se ha fomentado lo conveniente, en el Seminario, el idioma vasco, lengua vernácula de la mayor parte de los habitantes de Guipúzcoa y de Vizcaya, preparando a los seminaristas para la catequesis, predicación y para las confesiones que la inmensa mayoría del País hace en vascuence. Y esto, que es acatamiento a la ley natural, a la legislación positiva de la Iglesia, constituye también ahora, en las presentes circunstancias, nacionalismo. ¡Cuánta injusticia y ridiculez!”⁴⁴

Etenda geratu zen hainbat idazle euskaldunen bidea; horrela, esaterako, *Pisia* (1935) eta *Kimia* (1936) lehen zientzia liburuak idatzi zituen Gabirel Jauregirena; gertatuta zuen natur zientziei buruzko beste liburu bat, baina altxamenduak eta diktadurak ez zioten argitaratzen utzi; Gasteizeko irakasle postua ere utzi beharra izan zuen, eta aurrerantzean ez zuen ezer idatzi, 50 urte zituela 1945ean Larrean -Zornotzan- hil zen arte.

Inork ez zuen bururik aske izan nazionalisten eta euskal kulturaren araukako jazarpen horretan... Euskal apaiz eta erlijioso aldra handiaren artean, batzuk juizio sumarisimoak izan ostean espetxeratuak izan ziren; beste batzuk, egoera hartan ezarriak izan ziren nagusiek, batzuetan asmo onez, munduan zehar sakabanatu zituzten.

Francoren gobernuak “Boletín Oficial del Estado” zeritzanaren bidez 1938-1940. urteetan eta hurrengoetan garbiketa itzela egin zuen profesionalen talde osoan, sanitarioak, funtzionarioak, medikuak, kazetariak, epaitegietako langileak, irakasleak

⁴⁴ *Salpicaduras de la tormenta*,...670 or. (“Elizaren arauak betez, seminarioan egokia zena, euskara, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarren eguneroko hizkuntza hultzatu da, abadegaiak, dotrina irakasteko, hitzaldiak egiteko eta herritar gehienek euskaraz egin ohi dituzten aitortzak entzuteko gertatuz. Eta, berezko legea, Elizaren ageriko aginduzko legeria onartzea baino ez den hau, une honetan, egoera hauetan nazionalismoa ohi da. Nolako bidegabekeria eta lelokeria!”)

eta abar postuetatik kenduz. Hainbatek bizi ahal izateko kanpora joan beharra izan zuten⁴⁵.

Egin-eginean ere, lehen mailako irakaskuntza emateko Gipuzkoan eta Bizkaian martxan jarritako auzo-eskola guztiak estatuaren pean jarri ziren 1938ko apirilaren 18an; honetarako idatzitako agirian eskola guztien zerrenda ageri da; benetan kopuru handia: 21 Gipuzkoan eta 170 Bizkaian⁴⁶.

c) Euskararen aurkako debekua eta jazarpena

Diktadurak eta beraren organismo eta erakundeek oso-osotan baztertu eta ostikopetu zuten euskara. Lehen eta behin 1936ko estatutuan onartutako euskaren ofizialtasuna ukatu eta kendu zuten. Menperatuenez hizkuntza zigortu eta gaztelania ezarri behar zen gizarteko maila guztietan. Bide horretako hainbat dekretu atera zituen gobernuak.

- 1938ko maiatzaren 18koa, 1932-V-14ko agindua, eta berearekin bat zeudenak indargabetuz, erregistroan euskal izenak agertzea gaitzesten duena: "Debe señalarse también como origen de anomalías registrales la morbosa exacerbación en algunas provincias del sentimiento regionalista, que llevó a determinados Registros buen número de nombres, que no sólo están expresados en idioma distinto al oficial castellano, sino que entrañan una significación contraria a la unidad de la Patria. Tal ocurre en las vascongadas, por ejemplo, con los nombres de Iñaki, Kepa, Koldobika y otros que denuncian indiscutible significación separatista"⁴⁷.

- Hiru egun geroago euskararen aurkakoa: "todavía algunas Sociedades Cooperativas de las Provincias Vascongadas man-

⁴⁵ *Salpicaduras de la tormenta*,... 675-677 or.

⁴⁶ Boletín Oficial del Estado, *Aranzadi. Repertorio cronológico de legislación. 1938*, Pamplona, 1939, 347-347 or, 388. zk.

⁴⁷ Boletín Oficial del Estado, cf. *Aranzadi. Repertorio cronológico de legislación. 1938*, Pamplona, 1939, 464-465 or., 531. zk.

tienen sus títulos sociales o permiten circular sus Estatutos o Reglamentos redactados en el lenguaje vasco, si bien casi siempre, figura unida una traducción castellana”; eta debekatu egin zen gaztelania ez zen beste hizkuntzarik erabiltzea, izendura, sozietate izen, estatutu eta araudietan⁴⁸.

- Hilabete gutxi geroago, urte bereko abuztuan hurrengo hau dator: “las inscripciones que se hallen practicadas en idioma o dialecto distinto al idioma oficial castellano”⁴⁹.

- 1940ko maiatzaren 20an euskara, jazarpen bidez herri bizitzatik kentzeko beste agindu zorrotz bat eman zen; horrela, adibidez, industria jabetzari (errotulu, denda, marka, etabarri) dagokionez honakoa ageri zen: “*prohiben denominaciones en lengua extranjera*” esto es, *distinta al idioma castellano*”⁵⁰.

- Irakaskuntzari buruzko dekretuetan guztiz ahazten da euskara dagoenik⁵¹, etab.

Agirietan nazio eta hizkuntza bakarra, hau da, espainola aipatzen dira.

Egunkariak ere mesprezu handia agertuko diote euskarari: horretan saiatuko ziren garai hartan Bizkaian eta Gipuzkoan kaleratzen zirenak (*Hierro, El Diario Vasco, El Correo Español-El Pubelo Vasco, La Gaceta del Norte, La voz de España,...*); esaterako, 1937. urtean, argiro nabari da egunkariak agertzen zuten azarpen hau. Lehenago, 1936an, *El Pensamiento Alavés* eta *Diario de Navarra* egunkariak hainbat kanpaina egin zituzten euskarari izen ona kentzeko.

Itzelezkoa izan zen eskoletan euskarari egin zitzaion jazarpena. Eguneroko janari ziren debekuak eta zigorrak; eta berezi-

⁴⁸ Boletín Oficial del Estado, *Aranzadi. Repertorio....1938*, Pamplona, 1939, 473 or, 554. zk. (Agiriaren data:: 1938-V-21-V).

⁴⁹ Boletín Oficial del Estado, *Aranzadi. Repertorio... 1938*, 707 or., 891. zk. (1938-VIII-12ko Agindua).

⁵⁰ Boletín Oficial del Estado, *Aranzadi. Repertorio... 1940*, 948.or, 950. zk.

⁵¹ Begiratu zenbait dekretu Boletín Oficial del Estado delakoan (1938-IX-20, 1940-VII-12, 1943-VII-29, 1944-VI-7, 1945-VI-17, 1945-VII-18).

ki edozein gaztetxori jasanezina gertatzen zaion metodoa erabiltzen zen, egin-eginean ere, euskara erabiltzen zutenak barre-garri uztea,... Kontaezinak dira gertakariak eta pasadizoak.

Gizarte bizitzan jazarpen hau hain sakon sartuta izanik, hainbat eta hainbat herritarrek mehatxupearan eta konplexuz beterik ikusten zituzten euren buruak. Hona hemen nola Euskaltzaindiaren liburu batek argi eta garbi jartzen digun aurrez aurre egoera hori: *“Un matrimonio euskaldún de la montaña de Navarra, y por temor a represalias contra los que manifestaban algún cariño por el euskara en los pueblos, se trasladada a la capital, y con consigna escrita: ocultar sistemáticamente todo signo de identidad vasca. El miedo se convertía en terror cuando se enteraban de que gente acusada de ser vasca y nacionalista era detenida, maltratada con brutalidad, y finalmente transportada en camiones a la Sierra de Urbasa, donde eran despeñados en el tristemente famoso balcón de Urbasa. A tanto llegó el terror que ni siquiera entre el matrimonio se cruzaban palabra en su lengua, hasta entonces habitual. Menos aún a los hijos a los que querían preservar de riesgos. Pasaron los años, casi cuarenta, hasta que llegan los encuestadores ahora; en un principio se niegan a decir que conocen el euskara, hasta que en la conversación que se hace fácil confiesan el pecado de haber escondido su lengua durante cuarenta años. Ha sido a su vez hijos a los que más ha sorprendido el hecho”*⁵².

III. EUSKARAREN ALDEKO HASIERA MOTELAK (1945-1950).

Gerra zibilak eta ondoko diktadurak euskararengan halako eragin ikaragarria izan bazuten ere, gerraondoko urteetan (1939-1950) ahalegin handiak egin ziren kultur jarduerak euskaraz egiten hasteko; eta ahalegina bikoitza izan zenez bi talde gogora ekarri beharra dugu: atzerrian ari zirenak, eta Euskal Herrian bizitzen jarraitzen zutenak.

⁵² *Conflicto lingüístico en Euskadi*, Bilbao, 1979, p.52-53.

Atzerriko euskaldunek eta Iparraldekoek eman zioten hasiera kultur jarduerari, hala nola aldizkariak argitaratuz: 1939-1951. urteetan sortu edo jarduera berrasi zuten 31 aldizkarien artean lau bakarrik ateratzen ziren Hego Euskalerrian. Besteak, Frantzian (18) eta Amerikan (9) ateratzen ziren. Halako batzuk aipatzearren hona batzuk: *Aintzina* (Donibane Lohitzune, 1942-1945), *Elgar* (Paris, 1948-1975), *Eusko Foklore* (Baiona - Donostia, 1947-1975), *Eusko Jakintza* (Baiona, 1947-1958), *Euzko Deya* (Mexiko, 1947-1971), *Euzko Gogoa* (Guatemala - Baiona, 1948-1959), *Gernika* (Donibane Lohitzune, 1943-1953), *Gure Herria* (Baiona, 1950-), *Herria* (Baiona, 1944-), etb.

Baina gure interes-gune nagusia nola burutu zen diktadurapean euskarazko jarduera Hego Euskalerrian ikustea dugu. Gerra aurreko berpizkundean hainbateko lana egin zuten Elizak eta berari hur-hurretik loturiko jendeak hainbat aldizkari eta liburu argitaratzea bultzatuz. Oraingoan ere, hainbatean apaizek eta erlijiosoek (sarritan nor bere barruak eraginda bere kontura) emango diote hasiera euskal argitalpenei diktadurapeko garai gogorretan, sarritan jazarpenak eta debekuak jasaz zituztelarik.

Gerra garaian aldizkari guztiak desagertu ondoren, 1941-1951. urteetan bi aldizkari agertuko dira euskara hutsean. Frantziskotarrek *Anaitasuna* kaleratzen hasi ziren Zarautzen (1945), eta karmeldarrek "*Karmel*", Zornotzan. Azken hau "*Karmen'go Amaren Egutegia*" (1951) izena zuela egutegi edo urtekariaren itxura hartuta. Urte gutxi barru debekatu egin zuten⁵³. Hasierako ahalegin honek fruitu hobeak ekarriko zituen hurrengo zortzi urteetan; Hego Euskal Herrian beste hamar aldizkari berri agertu baitziren euskara hutsean; oraingoan ere, gehienak erlijiosoek bultzatuta: halako bost mekanografiaturik eta multikopistan atera ziren; hau da, ez ziren inprimategiko

⁵³ Lino AKESOLO - Santiago ONAINDIA - Anjel LOBERA, *KARMEL aldizkariaren historia*, Karmel 1994-4, 6-42, begiratu 24. or.

letraz ateratzen, klandestinoak zirelako edota erlijioso gazteen erabilera ia hutsetarako eginak zirelako⁵⁴.

Liburuei dagokien jarduerak antzerako bideak urratu zituen: atzerrian Hego Euskal Herriko lau Lurraldetan baino gehiago argitaratu zen. Horrela, 1940tik 1948ra bitartean jatorriz euskaraz eginak, itzuliak edo berrargitaratuak izan ziren 53 liburuen artean 10 argitaratu ziren bakarrik Espainiako lurretan; halakoen artean, gainera, hiru bi hizkuntzetan. Horrela, Azkueren *Euskal Herriaren Yakintza Madril*⁵⁵. Baina hurrengo bi urteetan (1949-1950) alderantziz gertatuko da; bi urtetako epealdian argitaratutako 26 euskal liburuetarik 19, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan argitaratuko dira⁵⁶. Liburu horien artean aipamen berezia merezi dute izan zuten eragina dela eta: S. Mitxelenak eginiko *Arantzazu* Euskal Poemak (1949), eta Orixeren *Euskaldunak* (1950) poemak. Aldi horretako liburu gehienak erlijio arloak edota apaiz eta erlijiosoek idatziak izan ziren.

Euskararen berpizkundea, baina, ez zen aldizkari eta liburuetan bakarrik agertu. Giza talde batzutan ere indarra hasten hasi zen. Nahiz eta gerraondoko lehen hamarkadan euskarak eskoletan inolako lekurik ez izan, gaztelania baitzen bertako hizkuntza bakar-bakarra. Elizako hainbat postutan ere erdaldunek ageri dira jaun eta jabe. Hala ere hainbat elizetan euskaraz ematen zen dotrina eta sermoiak ere euskaraz egiten ziren.

⁵⁴ *Zeruko Argia* (Iruña, 1954), *Artzai-deia* (Lekaroz, 1955), *Irun da Ondarrabiko Kaputxinoen Irugarren Ordenako orria*, (1955), *Nora?* (Irun, 1955), *Jakin* (Arantzazu, 1956), *Zeutzat* (Mendaxa, 1956), *Ekin* (Loyola, 1956), *Olerti* (Larrea-Zornotza, 1959), *Sirimiri* (Zornotza, 1959), *Umeen deya* (Iruña, 1959), *Laiaketan* (Urretxu, 1959) (Cf. Javier DIAZ NOCI, *Euskerazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1934-1959)*, Donostia, p.1994, 144-165; Julen URKIZA, *Aldizkari eta egunkarietako olerki eta bertsoen bibliografia*.

⁵⁵ Joan Mari TORREALDAY, *Euskal idazleak gaur...*, Oñaki, 1977, 572-574.or.

⁵⁶ Eta 1951-1954 arteko urteetan argitaratutako 58 liburuen artean 35 Hego Euskal Herrikoak dira, beraien artean aipamen berezi merezi duela Santiago Onaindiaren *Milla Euskal Olerki Eder* liburuak (Larrea-Zornotza, 1954).

Horrela, gizatalde hau izan zen hainbatean, Euskal Herrian jendaurrean agerian euskaraz bizi izan talde bakarra.

Hasiera horietan euskarari arnas berria emateko ahaleginean saiatu zirenen artean nahitaez gogora ekarri behar ikastolari loturik bizi izan zen Elvira Zipitria; 1943an guraso sutsu batzuen laguntza jasoz, ikastola txiki bat isilpean abiabidean jartzea lortu zuen. Susmo txarrak uxatzeko umeak zaintzeko haurtzaindegia, gurasoen artean umei jolasak irakasteko gunea edo horrelako zerbait zela zabaldu zuten. 1950eko hamarkadan, hasieratan isilka-misilka, beste hainbatek jarraitu zioten haren bideari. Horrela, 1960ko hamarkadan era antolatuan eta adorez beteta ageri zaizkigu ikastolak, inork inoiz geldiarazi ezin izan dituen indarrez ugaritu direla Euskal Herriko bazter guztietan.

Bibliografia:

- EUSKALTZAINDIA, *El libro blanco del euskara*, Bilbao 1977, 689 or.
- Joseba INIXAUSTI (Zuz.), *Euskal Herria. (I. Historia eta gizartea - Historia y sociedad. II. Errealitate eta egitasmo - Realidad y proyecto)*, 2 liburuki, Donostia-Arrasate (Lan Kide Aurrezkia), 1985.
- Joseba INIXAUSTI, *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, Vitoria-Gasteiz, 1990, 211 or.
- Joan Mari TORREALDAY, *Euskal idazleak, gaur - Historia social de la lengua y literatura vascas*, Oñati-Arantzazu, 1977, 677 or.
- Joan Mari TORREALDAI NABEA, *XX. Mendeko Euskal Liburuen Katalogoa (1900-1992)*, Donostia, 1993, XXIII - 1187 or.
- Javier DIAZ NOCI, *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Donostia, 1994, 191 or.
- Julen URKIZA, *Aldizkari eta egunkarietako olerki eta bertsoen bibliografia* Markina-Xemein, 1999, 1735 or. (Karmel Sorta - 11).
- Luis MITXELENA, *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid, 1960, 183 or. (2. arg.: Donostia, 1988).
- Luis VILLASANTI, *Historia de la literatura vasca*, Bilbao, 1961, 445 or. (2. arg.: Arantzazu - Burgos, 1979, 487 or.).
- Santiago ONAINDIA, *Euskal literatura*, 5 liburuki, Bilbao, 1972-1977.

Julen Urkiza - Patxi Uribarren